

eri izanez ez bartzen aise ibiltzen, ikasleak autoan joaiten zitzaizkon bila eta horrela jarraituz ahal zitzaion bere lanari.

Ongi idazten zuen euskeraz, baina ez dut uste libururik ager-arazi duen. Dakiguna da, Donibaneko apez batek erdaraz idatzi igandeko predikua Lacarra andereñoak ematen ziola euskera garbi errexean.

“Método” bat bazuela erran baitugu, haren argitaratzerat sustatzen zuten adixkidek, baina heriotzeak goizegi jo zuen, frango hiski. Kafearen hartzeko, bera eta bere koñadua mahain ondoan zirelarik, gazaren lurrinak pozoinatuta hilak atzeman zituzten, 1970-eko abendoaren 21-ean.

P. L.

JON MIRANDE AYPHASORHO (1925-1972)

1972ko abenduaren 28an hil zen Jon Mirande, Paris-en. Hiri honetan sortua zen 1925eko urrilaren 10ean, guraso zuberotarrengandik.

Euskal idazle ospetsua, eta batez ere poeta handia. Euskaltzaindiaren laguntzailea. Paris-ko Unibersidadean estudiatu zituen Eskubidetza eta Linguistika. Anitz hizkuntza eta euskararen dialektoak ikasiak zituen.

Bere lanik gehienak poesiak, ipuinak eta saiakerak ziren eta aldizkari haueetan sakabanaturik gelditzen zaizkigu: “Gernika”, “Euzko-gogoa”, “Elgar”, “Egan” eta “Igela”. *Haur besoetakoa* (Donostia, 1970) izeneko nobela laburra dugu argitara eman zigun liburu bakarra.

Hortik aparte, lan asko euskaratu zituen, batez ere frantsezetik eta inglesetik, Nietzsche, Allan Poe, H. H. Munro eta abar.

Idazle bakan honek ipuin beltzak zituen gogoko eta era honetakoak lehen aldiz ekarri zituen euskal literaturara. Poesian berriz, era berric hazi ereintzaie zela esan genezake, formak eta esateko erak zuten garrantzia erakutsi zigun, gai biziak hartuaz. Egungo poesia berriaren hasierako eragintza berari zor diogu.

Euskal-Herriaz ideia bereziak zituen, “Gernika” aldizkariaren 23 eta 25 zenbakietan agertu zituen, eta emendik sortu zit zaizkion etsai eta nahigaberik gehienak. Izakerazko pesimismo baten menpean bizi zan eta, gure herriari ez-ezik, bere buruari ere etsia bizizen.

Bizitza sufrikario izan zitzaion gizonak heriotzan aurkitu dezala bakea.

J. S. M.

AMERICO CASTRO (1885-1972)

1972ko uztailaren 25 ean, Girona-ko Lloret del Mar-en hil zen Américo Castro. Euskaltzaindiaren laguntzaile zen 1930etik.

Río de Janeiro-n sortua, 1885ean, guraso espainoletatik. Madrilen egin zituen lehen ikastaroak, geroago Alemanian eta Frantzia osatzeko. Legetan eta Letretan doktoratua zen. Centro de Estudios Históricos-eko